

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

LAUTADA ELGEA MENDIZERRAKO URKIDETZA

Lautada-Elgea Mendizerrako Urkidetzaren estatutuen aldaketa, hasierako onespena eta jendaurreko erakusketa

Lautada-Elgea Mendizerrako Urkidetzaren batzar orokorrak 2022ko abenduaren 15ean eginitiko ez-ohiko bilkuran, legez eskatzen den quorumarekin erabaki zuen, besteak beste, estatutuen zenbait artikulua aldatzeko hasierako onespena ematea Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legea egokitzeko, eta behar diren hobekuntzak eta eguneratzeak egiteko, horrez gain onartu zen testua hogeitun egunez jendaurrean erakusgai jartzea ALHAOn, argitaratzen denetik, behar diren alegazioak edo/eta iradokizunak egin ahal izateko.

Jendaurrean erakusgai jartzeko arauzko epea amaitu eta alegaziorik edo iradokizunik aurkezten ez bada, eta partzuergoak osatzen duten kideen gehiengoak, dagozkien organoetan, aldaketa berresten badute, aldaketa ontzat emango litzake eta estatutuak aldatutzat hartuko dira.

Bestela, aurkeztutako alegazio, iradokizun edo aurkaratzeei buruzko erabakiak hartuko dira, bai eta estatutuak aldatzeari buruzkoak ere.

Estatutuen behin betiko onarpenaren iragarkia ALHAOn argitaratuko da, dagozkion ondorioetarako.

Ozaetan, 2023ko martxoaren 8an

Lehendakaria

ION KOLDO SAEZ DE URABAIN GARAI

**CONSORCIO DE AGUAS DE LA LLANADA – SIERRA DE ELGEA – ELGEA MENDIZERRAKO
URKIDETZAKO ESTATUTUAK****1. artikulua.- Partzuergoaren eraketa.**

1.- Barrundia, Iruraiz-Gauna eta Donemiliagako Udalek, Arrieta, Azilu, Dallo, Elgea, Etura, Ezkeretxoa, Gazeo Audikana, Gebara, Maturana, Etxabarri-Urtupiña, Langarika, Adana eta Alaitzako kontzejuek eta Arabako Foru Aldundiak, indarrean dagoen legeriak aitortzen dien ahalmenaren arabera, Partzuergoa eratu dute beren eskumeneko azpiegiturak eta zerbitzuak batera ezarri eta ustiatzeko, estatutu hauetako 6. artikuluan adierazitako helburuak betetzeko asmoz.

2.- Estatutu hauen arabera onartuko dira kide berriak eta daudenak kanporatuko.

3.- Partzuergoan erakunde berriak sartzeari ez da estatutuak aldatzeko arrazoi izango.

4.- Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 120. artikuluan aurreikusitakoarekin bat etorritik, Arabako Foru Aldundiari atxikita geratzen da Lautada-Elgea Mendizerrako Urkidetza Ur Partzuergoa.

Edozein atxikipen-aldaketa egiteko, eta horren arrazoia edozein dela ere, Partzuergoaren estatutuak aldatu beharko dira, gehienez ere sei hilabeteko epean, atxikipen-aldaketa izan zen aurrekontu-ekitaldiaren hurrengo hasten denetik zenbatuta.

2. artikulua.- Izena eta egoitza soziala.

1.- "CONSORCIO DE AGUAS DE LA LLANADA-SIERRA ELGEA - LAUTADA-ELGEA MENDIZARREKO URKIDETZA" izena du Partzuergoak.

2.- Bere egoitza soziala Barrundiako Udalean egongo da.

3.- Batzarrak erabakitako egoitza soziala aldatzeko ez da beharrezkoa izango estatutuak aldatzea.

3. artikulua.- Nortasun eta gaitasun juridikoa.

Partzuergoa Zuzenbide Publikoko erakundea da, asoziatibo eta boluntarioa, eta herri-erakundeek soilik osatuta dago. Nortasun juridiko propioa du eta, bere helburuak betetzeko, jarduteko gaitasun osoa. Hori dela eta, ahalmena izango du zernahi ondasun erosi, eduki, eskatu, trukatu, zergapetu eta besterentzeko, kontratuak izenpetzeko, estatutu hauetan ezarritako zerbitzu publikoa eta gerora bere eskumenekotzat jotzen dituenak ezarri eta ustiatzeko, hitzemandeko, ezarritako errekursoak aurkezteko, legeetan jasota dauden ekintzak egiteko, langileak kontratatuzko eta indarreko legeriaren arabera ematen zaizkion gainerako ahalmenak baliatzeko.

Partzuergoak Partzuergoko kide diren erakundeak ordezkatzeko ditu bere helburuak betetzeko, eta horretarako behar dituen ondasunen eta eskubideen titularrak izango dira.

4. artikulua.- Partzuergoaren lurralde-eremua eta iraupena.

1.- Partzuergoaren lurralde-eremua kasuan-kasuan hura osatzen duten erakundeena izango da.

2.- Partzuergoak zerbitzuak eman ahal izango dizkie Partzuergoko kide ez diren erakundeei, pertsona fisikoei eta/edo juridikoei, baldin eta Partzuergoa osatzen duten erakundeetako erabiltzaileei zerbitzuak behar bezala eta eraginkortasunez emango zaizkiela alde aurretik bermatzen bada.

3.- Partzuergoa denbora-muga jakinik gabe eratu da, Partzuergoa osatzen duten korporazioek hura desegitea erabakitzen ez badute behintzat, eta hargatik eragotzi gabe, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legean xedatutakoaren arabera (125. eta 126. artikulua), Partzuergoa osatzen duten kideek beren borondatez uzteko duten eskubidea baliatzearen ondorioz, Partzuergoaren jarraipenerako lege eskatzen den gutxienekoa hari atxikita ez egotea.

5. artikulua.- Araubide juridikoa.

1.- Partzuergoaren antolaketa, funtzionamendua eta araubide juridikoa bat etorriko dira estatutu hauetan eta Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legean aurreikusitakoarekin, eta, osagarri gisa, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legean, aurrekoa garatzen duten autonomia-erkidegoko xedapenetan, toki-erakundeei aplikatu beharreko gainerako lege- eta erregelamendu-xedapenetan, eta Uraren Legean eta gaia arautzen duten beste xedapen sektorial batzuetan aurreikusitakoarekin.

2.- Batzar Nagusiaren eta Gobernu Batzordearen erabakiek eta lehendakariaren ebazpenek amaiera emango diote bide administratiboari.

3.- Partzuergoko organoen erabakiak eta ebazpenak berehala betearazi beharko dira, goragokoen

onespena edo baimena behar denean izan ezik.

6. artikulua.- Partzuergoaren helburuak.

1.- Partzuergoaren helburuak dira lehen mailako sareetan ur-horniduraren eta saneamenduari azpiegitura ezartzea eta ustiatzea, eta dagozkion zerbitzuak ematea, hori guztia egokiro eta indarrean dagoen araudiaren arabera.

2.- Egoki iritziz gero, Partzuergoak ur-zikloaren beste fase batzuetara zabaldu ahal izango ditu bere helburuak, horretan interesa duten erakundeekin bat etorritik eta horiekin aurretiaz hitzarmena sinatuz.

7. artikulua.- Ahalmenak.

Bere helburuak betetzeko, Partzuergoak honako hauek egin ahal izango ditu:

- a) Estatuko administrazioari, autonomia erkidegokoari eta foru administrazioari eskatu eta haiengandik eskuratu indarrean dagoen legeriak eskaintzen dituen laguntza ekonomikoak eta teknikoak, bai eta haiekin hitzartutako beste batzuk ere.
- b) Ur-hornidurarako eta saneamendurako behar diren emakidak eta baimenak eskatu eta lortu.
- c) Zerbitzuak ezarri eta ustiatzeko behar diren inbertsioak finantzatzeko beharrezkoak diren eragiketak egin.
- d) Azpiegiturak ezartzeko eta kontserbatzeko behar diren proiektuak egin eta obrak gauzatu, dagozkien planen arabera.
- e) Lehen mailako sarearen eta, hala badagokio, bigarren mailako sarearen hornidura- eta saneamendura-zerbitzuak kudeatu.
- f) Lehen mailako sarearen hornidura- eta saneamendu-zerbitzuen tarifak ezarri, eta Batzarrak egoki iritziz gero, horretan interesa duten erakundeek alde aurretik eskatuta, Partzuergoak kudeatuko luke tarifa orokorraren kobrantza.
- g) Toki-sareen saneamendurako eta uraren banaketarako aholkularitza teknikoa eman, baldin eta erakunde interesdunek alde aurretik eskatzen badute eta Partzuergoak onartzen badu.
- h) Aurreko artikuluen 2. atalean ezarritakoaren ondorioz, behar diren jarduketa guztiak egin.
- i) Partzuergoaren xede diren zerbitzuak emateko modua arautuko duten ordenantzak eta araudiak onartu.

8. artikulua.- Kudeatzeko modua.

Partzuergoak bere xede diren zerbitzuak eman ahal izango ditu, bere burua antolatzeko duen ahalmena baliatuz, toki-araubidearen legeriak zerbitzu publikoetarako ezartzen dituen kudeaketa moduetako edozein aukeratuta.

9. artikulua.- Zerbitzuak ematean lankidetzan aritzea.

Partzuergoak, hala badagokio, sor litekeen/litezkeen kudeaketa-erakundeak/erakundeek eta Partzuergoko erakunde publikoek beren lehendakari, alkate edo udalburu, errejidore eta ordezkarien bidez, batera jardungo dute zerbitzuak hobeto emateko. Horretarako, behar diren argibideak eta laguntza emango diote elkarri.

10. artikulua.- Hirigintza-arloko lankidetzak.

1.- Partzuergoak eta haren kide diren erakundeek lankidetzan aktiboki aritzeko konpromisoa hartzen dute, guztiak eragiten dieten hirigintza-arloko gaiak dagokienez. Ondorio horietarako, Udalek Partzuergoari kontsulta egingo diote plangintzako tresnak egiten, berrikusten edo aldatzen dituztenean, Partzuergoari eragiten dioten gaietan.

2.- Partzuergoak bere helburuak betetzean egiten dituen lur eta lurpeko erabilera-egintza guztiak zein eraikin eta instalazioen eraikuntzak, toki-korporazioek berek egiten dituztenen izaera eta maila berekoak izango dira. Beraz, ez dute ordainarazpenik ordaindu beharko.

10. bis artikulua.- Lizentziak.

Partzuergoak bere helburuak betetzean egiten dituen lur eta lurpeko erabilera-egintza guztiak zein eraikin eta instalazioen eraikuntzak, toki-korporazioek berek egiten dituztenen izaera eta maila berekoak izango dira. Beraz, ez dute inolako lizentziarik eskuratu beharrik izango, ezta

ordainarazpenik ordaindu beharrik ere.

Nolanahi ere, Partzuergoak udalei edo kontzejuei jakinaraziko die, behar besteko aurrerapenarekin, lurralde-eremuetan egin nahi dituen jarduketak.

11. artikulua.- Udal-ordenantzak egokitzea.

Partzuergoko erakundeen ordenantza guztiak, Partzuergoaren eskumeneko gaiak arautzen badituzte, Partzuergoak onetsitako ordenantzetara eta arau teknikoetara egokitu beharko dira, erakunde bakoitzak dituen berezitasunei kalterik egin gabe. Horietarako, erakunde horiek Partzuergoak adierazitako zehaztapenak erantsiko dizkiete beren ordenantzei.

12. artikulua.- Partzuergoaren organoak.

1.- Partzuergoaren gobernu eta administrazioa honako organo hauen esku egongo dira:

- Batzar Nagusia,
- Gobernu Batzordea,
- lehendakaria eta
- lehendakariordea.

2.- Zuzendaritza-organo izaera ere badu zuzendari kudeatzaileak, hori sortzen bada. Zerbitzuak emateko sozietate anonimo bat eratzen bada, kargu hori sozietate horretan sartuko da.

12. bis artikulua.- Kide anitzeko organoen bileren modua.

Kide anitzeko organoen (Batzar Nagusia eta Gobernu Batzordea) bilerak/bilkurak, oro har, aurrez aurrekoak izango dira, eta deialdian adierazitako lekuan egingo dira.

Hala ere, salbuespen gisa, Partzuergoko kide anitzeko organo horiek, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legearen 46.3 artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik eta artikuluko horretan aurreikusitako egoera eta baldintzetan, eratu, bilkurak egin eta erabakiak hartu ahal izango dituzte urrutetik bide elektronikoko eta telematikoen bidez.

Gobernu Batzordearen bilerekin dagokionez, eta TAOLen 46.3 artikuluan aurreikusitako inguruabarrak alde batera utzita, osorik edo zati batean telematikoki egin ahal izango dira –urruneko boto bidez–, bertaratzea ezinezkoa denean edo gaixotasuna, amatasuna/aitatasuna, lana, bidaiak edo antzeko arazoak direla-eta zaila denean, eta behar bezala justifikatzen denean, edo kide guztiak hala eskatzen dutenean.

Nolanahi ere, urrutiko bileretan argi eta garbi bermatu beharko da parte-hartzailearen/-hartzaileen identifikazioa eta quorumaren mantentzea.

Urrutiko bozketaren kasuan, ahoz eta eskua jasota emango da botoa.

13. artikulua.- Batzarra.

1.- Batzar Nagusia Partzuergoaren goreneko organoa da; estatutu hauetan jasotako eskumenak eta atribuzioak ditu, bai eta antolamendu juridikoan jasotako beste edozein ere.

2.- Batzar Nagusia bokalek osatzen dute, zeinak Partzuergoko erakundeetako bakoitzaren ordezkariak baitira, eta bokal bakoitzari boto bat dagokio.

a) Kide diren udalerrri eta kontzejuei honako ordezkari-kopuru hau dagokie:

*Iruñe-Gaunako Udala	ordezkari bat.
*Barrundiako Udala	ordezkari bat.
*Donemiliagako Udala	ordezkari bat.
*Adanako Kontzejua	ordezkari bat.
*Alaitzako Kontzejua	ordezkari bat.
*Añuako Kontzejua	ordezkari bat.
*Audikanako Kontzejua	ordezkari bat.
*Aziluko Kontzejua	ordezkari bat.
*Daloko Kontzejua	ordezkari bat.
*Etxebarri-Urtupiñako Kontzejua	ordezkari bat.
*Elgeako Kontzejua	ordezkari bat.
*Eturako Kontzejua	ordezkari bat.
*Ezkerekotxako Kontzejua	ordezkari bat.
*Gazeoko Kontzejua	ordezkari bat.
*Gebarako Kontzejua	ordezkari bat.
*Langarikako Kontzejua	ordezkari bat.
*Maturanako Kontzejua	ordezkari bat.

b) Arabako Foru Aldundiari ordezkari 1 dagokio.

3.- Ordezkari horietako bakoitzak duen ordezkagarritasuna ordezkatzeko duen organoaren ziurtagiriaren/ebazpen formalaren bidez egiaztatuko da, eta indarraldia zehaztuko da.

14. artikulua.- Partzuergoko erakundeetako ordezkariak hautatzea eta karguen iraupena.

1.- Partzuergoko toki-erakundeen ordezkari bokalak haien osoko bilkuretan edo batzarretan hautatuko dira. Gainera, udalbatzak eta kontzejuek ordezkariaren ordezkari bat izendatuko dute, titularrak kargua gaitzen bada, agertzen ez bada edo gaixorik jartzen bada.

2.- Aldundiaren ordezkari bokala Aldundiaren beraren araudiari jarraiki Aldundiak izendatzen duena izango da. Gainera, Aldundiak ordezkari bat izendatuko du, aurreko puntuan aipatutako kasuetarako.

3.- Bokalen agintaldiak lau urte iraungo du eta, hala badagokio, udalbatza berritzearekin batera bukatuko da. Kasu horietan, Partzuergoan dituen ordezkariak jarraituko dute, harik eta Partzuergoaren zuzendaritza-organok erabakitzen diren arte.

4.- Bokalek helbide elektroniko bat eman beharko dute jakinarazpenak egiteko, bilkuretarako deialdiak egiteko eta dokumentazioa bidaltzeko.

5.- Deialdiaren epeen zenbaketa bidalketaren hurrengo egun baliodunetik aurrera hasiko da.

15. artikulua.- Batzarren bilkurak.

1.- Batzar Nagusiaren bilkurak hiru motatakoak izan daitezke: ohikoak, ohiz kanpokoak, eta ohiz kanpoko presazkoak.

2.- Batzarra urtean behin bilduko da ohiko bilkuran, lehendakariak deituta.

3.- Halaber, egokitzat jotzen diren bilkurak egin ahal izango ditu ohiz kanpo, bai lehendakariaren eskutik bai Batzar Nagusiko kideen legezko kopuruaren laurden batek gutxienez idatziz eskatuta.

4.- Bilkuretara, hala badagokio, zuzendari kudeatzailea joango da, hitzarekin baina botorik gabe.

5.- Bilkuretara joan ahal izango dira, hitzarekin baina botorik gabe, profesionalak, Partzuergoko kide ez diren edo erakunde desberdinetakoak diren erakundeetako ordezkariak eta abar, baldin eta berariaz gonbidatu badituzte, aztertu beharreko gaiak justifikatzen bada.

16. artikulua.- Deialdia eta gai-zerrenda.

1.- Batzarren bilkura bakoitzerako deialdia denbora nahikoarekin egin beharko da. Deialdia zabaltzen denetik bilkura egiten den arte gutxienez bi egun baliodun igaroko dira, ohiz kanpoko presazko bilkuretan izan ezik, ordezkari guztiak bileran landu beharreko gaiak aztertu ahal izan dituzten.

Deialdian, bilkura noiz, zer ordutan eta non izango den adieraziko da, bai lehenengo deialdian bai bigarrenean, bai eta gai-zerrenda ere. Halaber, aipatu beharko da deialdia zabaltzen den egunetik aurrera ordezkariak eskura izango dituztela espedienteak eta agiriak.

2.- Deialdia, gai zerrenda eta bilkuran onetsi beharreko aurreko bilkuretako akten zirriborroak Batzar Nagusiko kideei jakinaraziko zaizkie, udalen eta kontzejuen bidez eta Partzuergoko erakundeetako gainerako organoen bidez, haiek beren ordezkariak helaraz diezazkieten. Hala, betetzat joko da jakinarazpena egiaztatzeko betekizuna.

3.- Deialdian, aztertuko diren gaien zerrenda aipatuko da, eta deialdia bidaltzen den egunetik aurrera espediente eta agiriak ordezkarien esku egongo direla adieraziko.

4.- Lehentasunez, deialdia eta horrekin batera doan dokumentazioa bide telematikoz bidaliko dira, salbu eta, kontzejuen ordezkarien kasuan, horiek beren agintaldiaren hasieran berariaz eskatzen badute posta arruntez eta paperean jaso nahi dituztela.

5.- Deialdiaren epeen zenbaketa bidalketaren hurrengo egun baliodunetik aurrera hasiko da.

17. artikulua.- Kide anitzeko organoaren funtzionamendua.

1.- Batzarren bilkurek balioa izateko, Batzarra osatzen duten hitzarekin baina botorik gabeko kideen erdia gehi bat bertaratu behar da.

Bigarren deialdian –horretarako, gutxienez ordu erdi igaro beharko da lehen deialdirako finkatutakotik–, nahikoa izango da Batzarra osatzen duten hitzarekin baina botorik gabeko kideen herena bertaratzeko, eta quorum horri eutsi beharko zaio bilkura osoan zehar.

Nolanahi ere, beharrezkoa da Batzarreko lehendakaria eta idazkaria edo haien legezko ordezkariak bertan izatea.

2.- Oro har, Batzar Nagusiaren erabakiak boto-eskubidea duten bertaratutako kideen gehiengo soilez hartuko dira. Estatutu hauetan berariaz hala ezartzen den kasuetan, Batzarreko legezko kideen gehiengo osoa behar ahal izango da erabakiak hartzeko.

3.- Estatutu hauetan arautzen ez diren kasuetan toki-erakundeen kide anitzeko organoen funtzionamenduari buruz toki arauetan xedatzen dena aplikatuko da Batzar Nagusian.

18. artikulua.- Batzar Nagusiaren atribuzioak.

1.- Batzarrak honako atribuzio hauek ditu:

- a) Partzuergoaren estatutuak aldatzea.
- b) Partzuergoa desagitea.
- c) Kideak onestea eta kanporatzea. Baldintza orokorrak eta partikularrak onartzea. Partzuergoko kideren bat Partzuergoa utziz gero, likidazio-kontua, uzte-kuota eta gainerako baldintzak onartzea.
- d) Ohiko bilkuren aldizkakotasuna aldatzea.
- e) Barne ordenantzak eta araudiak onartzea, bai eta horien aldaketak ere. Horiek gauzatzean, Batzar Nagusiak boto-eskubidea edo erabakiak hartzeko parte hartzea aldi baterako etetea erabaki ahal izango du, baldin eta Partzuergoko kide diren administrazioek edo erakundeek Partzuergoarekiko betebeharrak betetzen ez badituzte, bereziki Partzuergoaren jarduerak finantzatzeko konpromisoei dagokienez, bai eta erregelamenduz ezarritako beste batzuk ere betetzen ez badituzte. Aldi baterako etete horren ondorioak etengo dira etena eragin zuen arrazoia desagertzen denean.
- f) Lehen mailako sarearen eta, hala badagokio, bigarren-mailako sarearen hornidura- eta, hala badagokio, saneamendu-zerbitzuak kudeatzeko modua onartzea. Horiek kudeatzeko sozietate bat sortzen bada, Batzarrari egokituzaio sozietate horren estatutuak eta aurrekontua onartzea.
- g) Bere aurrekontua eta betearazpen-oinarriak onartzea eta aldatzea eta kontuak onartzea.
- h) Ordainarazpenak eta tarifak ezartzea, eta dagozkien ordenantza fiskalak eta horien aldaketak onartzea.
- i) Urte anitzeko gastuen konpromisoak eta zorpetze-muga adieraztea.
- J) Erakundeko plantilla organikoa eta lanpostuen zerrenda urtero onartzea, aurrekontuaren bidez. Zerrenda horrek funtzionarioentzat, lan-kontratuko langileentzat eta behin-behineko langileentzat gordetako lanpostu guztiak jaso beharko ditu.
- k) Ondasunak eta eskubideak besterentzea eta eskuratzea, eta horien gaineko transakzioa, horien balioa aurrekontuko balibide arrunten ehuneko hamar baino handiagoa denean.
- l) Beste toki-erakunde batzuei eta gainerako herri-administrazioei eskumenen inguruko gatazkak planteatzea.
- m) Partzuergoko erakundeek edo beste toki-erakunde edo herri-administrazio batzuek eskuordetutako eskumenak onartzea.
- n) Hornidura- eta saneamendu-zerbitzuak emateari buruzko planak, jarduketa-programak eta araudiak onartzea.
- ñ) Partzuergoko kide ez diren erakundeekin egiten diren lankidetzak hitzarmenak onartzea.
- o) Partzuergoaren izena aldatzea.
- p) Partzuergoaren egoitza soziala aldatzea.
- q) Estatutu hauetan jasotako gainerako atribuzioak.

2.- Boto-eskubidea duten Batzar Nagusiko kideen legezko kopuruaren gehiengo osoaren aldeko botoa beharko da a), b), c), e), h), i), j), ñ), o) eta p) ataletan adierazitako gaiet buruzko erabakiak hartzeko.

3.- Batzarrak zuzendaritzako gainerako organoen esku utzi ahal izango ditu gehiengo osoa behar ez duten gaiak.

4.- Gai eta jarduera jakin batean organo eskuduna zein den zehazteko, estatutu hauek interpretatzeko arrazoizko zalantzarik edo beharrik izanez gero, Batzar Nagusiak hartuko du dagokion interpretazio-erabakia, bertaratutako kideen gehiengo soilez.

19. artikulua.- Gobernu Batzordea.

- 1.- Gobernu Batzordea sei (6) bokalek osatuko dute.
- 2.- Gobernu Batzordeko kide izango dira Partzuergoa osatzen duten udalerrietako hiru (3) ordezkari, Batzarrek horretarako aukeratuak udalerri horiek izendatutako kideen artean, Arabako Foru Aldundiko ordezkari bat (1), eta kontzejutako bi (2) ordezkari, Batzar Nagusiak horretarako aukeratuak Batzarreko kide diren kontzejutako kideen artean.
- 3.- Gobernu Batzordearen bileretan parte hartzera gonbidatu ahal izango dira, hitzarekin baina botorik gabe, ordezkariarik ez duen edozein kontzejutako ordezkariak, beren kontzejuei eragiten dieten gaiak aztertu behar direnean.
- 4.- Bokalen agintaldiak lau urte iraungo du eta, hala badagokio, udalbatza berritzearekin batera bukatuko da. Kasu horietan, Partzuergoan dituen ordezkariak jarraituko dute, harik eta Partzuergoko erakunde eskumendunak horien ordezkoak izendatzen dituen arte.

20. artikulua.- Gobernu Batzordearen bilkurak.

- 1.- Batzar Nagusiaren bilkurak hiru motatakoak izan daitezke: ohikoak, ohiz kanpokoak, eta ohiz kanpoko presazkoak.
- 2.- Gobernu Batzordea hiru hilean behin bilduko da, lehendakariak deitutako ohiko bilkuran.
- 3.- Halaber, egokitzat jotzen dituen bilkurak egin ahal izango ditu ohiz kanpo, bai lehendakariaren ekimenez bai Gobernu Batzordeko kideen legezko kopuruaren laurden batek gutxienez idatziz eskatuta.
- 4.- Bileretara zuzendari gerentea joango da, halakorik izanez gero, hitzarekin baina botorik gabe.

21. artikulua.- Deialdia eta gai-zerrenda.

- 1.- Gobernu Batzordearen bilkura bakoitzerako deialdia denbora nahikoarekin egin beharko da. Deialdia zabaltzen denetik bilkura egiten den arte gutxienez bi egun balioudun igaroko dira, ohiz kanpoko presazko bilkuretan izan ezik, ordezkari guztiek bileran landu beharreko gaiak aztertu ahal izan ditzaten.

Deialdian, bilkura noiz, zer ordutan eta non izango den adieraziko da, bai lehenengo deialdian bai bigarreanean, bai eta gai-zerrenda ere. Halaber, aipatu beharko da deialdia zabaltzen den egunetik aurrera ordezkariak eskura izango dituztela espedienteak eta agiriak.
- 2.- Deialdia, gai zerrenda eta bilkuran onetsi beharreko aurreko bilkuretako akten zirriborroak Batzar Nagusiko kideei jakinaraziko zaizkie, udalen eta Partzuergoko erakundeetako gainerako organoen bidez, haiak beren ordezkariak helaraz diezazkieten. Hala, betetzat joko da jakinarazpena egiaztatzeko betekizuna.
- 3.- Ahal den neurrian, bilkurako dokumentazio guztia posta informatikoz edo bestelako sistema informatikoz bidaliko da.

22. artikulua.- Kide anitzeko organoaren funtzionamendua.

- 1.- Gobernu Batzordeko bilkurek balioa izateko, Batzordea osatzen duten kideen erdia gehi bat bertaratu behar da, eta quorum horri eutsi beharko zaio bilkura osoan zehar. Nolanahi ere, beharrezkoa da Gobernu Batzordeko lehendakaria eta idazkaria edo beraien legezko ordezkoak bertan izatea.
- 2.- Gobernu Batzordearen erabakiak, oro har, bertaratutako kideen gehiengo soilak hartuko ditu. Estatutu hauetan hala ezartzen den kasuetan, erabakiak Gobernu Batzordeko kideen legezko kopuruaren bi herenen aldeko botoa behar du.
- 3.- Estatutu hauetan arautzen ez diren kasuetan toki-erakundeen kide anitzeko organoen funtzionamenduari buruz toki arauetan xedatzen dena aplikatuko da Gobernu Batzordean.

23. artikulua.- Gobernu Batzordearen atribuzioak.

- 1.- Gobernu Batzordeak honako atribuzio hauek ditu:
 - a) Lanak eta zerbitzuak kontratatzeko baldintza-agiriak onartzea, eta horiek behin-betiko esleitzea.
 - b) Obra-proiektuak onartzea.
 - c) Langileak hautatzeko probetarako oinarriak onartzea, eta ordainsari osagarrien zenbateko osoa finkatzea, indarreko legeriak ezarritako gutxieneko eta gehieneko mugak kontuan izanik.

- d) Egintza administratiboak eta judizialak baliatzea eta Partzuergoaren kontra irekitako prozeduretan defentsa-lana egitea.
 - e) Partzuergoko erakundeek edo beste toki-erakunde edo herri-administrazio batzuek eskuordetutako eskumenak onartzea.
 - f) Hornidura- eta saneamendu-zerbitzuak emateari buruzko planak, jarduketa-programak eta araudiak Batzarrari aurkeztea, hark onar ditzan.
- Salbuespen gisa, eta presazko zio arrazoituak direla medio, horiek onartu ahal izango ditu, eta horren berri eman beharko du egingo den hurrengo Batzar Nagusian.
- g) Aurrekontuen Proiektua Batzar Nagusian behin betiko onartzeko aurkeztu aurretik onartzea.
 - h) Indarreko legeriak eta estatutu hauek Batzar Nagusiari berariaz ematen ez dizkieten atribuzioak.

2.- Batzarrak edo lehendakariak eskuordetzen dion beste edozein atribuzio.

24. artikulua.- Lehendakaria eta lehendakariordea.

- 1.- Batzarrak hautatuko ditu, Gobernu Batzordeko kideen artean, zuzeneko bozketa bidez.
- 2.- Udalerriaren ordezkari diren Gobernu Batzordeko kideak bakarrik dira hautagaiak. Gobernu Batzordeko kide bakoitzak hautagai bakar bati emango dio botoa, boto-txartelaren bidez, izen-abizenak adierazita.
- 3.- Boto gehien lortu dituen hautagaia izendatuko da lehendakari, boto kopurua edozein izanik ere.
- 4.- Boto kopuruetan bigarren lekuan geratu den hautagaia lehendakariorde izendatuko da. Berdinketa egonez gero, berdindutako hautagaien artean zaharrenarena izendatuko da.

25. artikulua.- Lehendakariaren atribuzioak.

- 1.- Lehendakariak honako atribuzio hauek ditu:
 - a) Batzar Nagusiaren bilkurak deitzea, horietan buru izatea eta horiek bukatutzat ematea, eta eztabaidak zuzentzea. Berdinketak kalitatezko botoaren bidez ebatzi ahal izango ditu.
 - b) Batzar Nagusiaren eta Gobernu Batzordearen erabakiak betearaztea.
 - c) Partzuergoaren ordezkari ofiziala izatea; eskriturak, dokumentuak eta polizak izenpetzea; eta, behar denean, Partzuergoa ordezkatu eta defendatzen duten prokuradoreei eta abokatuei botereak esleitzea.
 - d) Partzuergoari esleitutako obrak eta zerbitzuak zuzentzea, bultzatzea eta ikuskatzea, horretarako xedapen egokiak onartuta.
 - e) Bere eskumenerako mugen barruan, gastuak xedatzea, ordainketak agintzea eta kontuak ematea. (aurrekontuaren % 10, gehienez).
 - f) Partzuergoko langile guztien buru nagusia izatea. Halaber, ezarritako probak gainditzen dituzten langileak izendatzea dagokio.
 - g) Bere ardurapean eta Batzarrak eta/edo Gobernu Batzordeak emandako irizpideen barruan, Partzuergoaren gaiek eskatzen dituzten premiazko neurriak bere kabuz hartzea, eta Batzar Nagusiari edo Gobernu Batzordeari hartutako neurrien berri ematea, harrezkero egiten den lehen bilkuran.
 - h) Presazko kasuetan, egintza administratibo eta judizialak gauzatzea, eta Batzar Nagusia jakinaren gainean jartzea egiten den lehen bilkuran.
 - i) Zerbitzuen kostuari buruzko azterlanak egitea eta horien errendimendua baloratzea, Batzar Nagusiak onar ditzan.
 - J) Aurrekontu-proiektuak egitea eta Gobernu Batzordeari aurkeztea onar ditzan, Batzar Nagusiak behin betiko onartu aurretik.
 - k) Betebeharrak onartzea eta ordainketak agintzea, aurrekontuaren likidazioa ematea eta erakundearen kontu orokorra egitea.
- 2.- Lehendakariak zuzendari kudeatzailearen esku utzi ahal izango ditu bere eskumenak, a), f), g) eta h) ataletan adierazitakoak izan ezik.

26. artikulua.- Lehendakariordearen atribuzioak.

Lehendakariordeari dagokio lehendakariaren eginkizun guztietan jardutea, hura kanpoan, gaixorik edo bertaratu ezinik badago, eta lehendakariaren eginkizunak betetzea, kargua hutsik badago.

27. artikulua.- Zuzendari kudeatzailea.

1.- Zuzendari kudeatzailea, postua sortuz gero, Partzuergoaren Batzarrak izendatu eta postutik kenduko du. Batzarrak lan-arabidea eta -baldintzak finkatuko ditu, eta bete beharreko eginkizunak zehaztuko ditu.

2.- Gainera, zuzendari kudeatzaileak zuzendaritzako gainerako organoek bere esku uzten dituzten funtzioak beteko ditu.

28. artikulua.- Baliabide ekonomikoak.

1.- Partzuergoak honako ondasun hauek izango ditu:

- a) Lehen mailako sareko hornidura- eta saneamendu-zerbitzuak ustiatzearen ondoriozko mota guztietako diru-sarrerak.
- b) Partzuergoko erakundeen, Eusko Jaurlaritzaren, Estatuko Gobernuaren eta Europako Gobernuaren ekarpenen ondoriozko diru-sarrerak, edo beste edozein organismo edo erakundetatik eta, bereziki, Foru Aldunditik datozenak, jarduketa hidraulikoaren arloko laguntzen bidez.
- c) Beste erakunde eta organismo publiko edo pribatu batzuetatik jasotako dirulaguntzak edo dohaintzak.
- d) Kreditu-eragiketetatik datozenak.
- e) Bere ondaretik datozen diru-sarrerak eta zuzenbide pribatuko gainerako guztiak.
- f) Zuzenbidearen arabera esleitu ahal zaizkion beste guztiak, zehapenak ordaintzearen ondoriozkoak barne.
- g) Zuzenbide publikoko beste edozein prestazio.

2.- Lehenengo atalean adierazi diren diru sarrerak nahikoak ez badira, zerbitzua jasotzen duten udal eta kontzejuek ekarpenak egitera behartu ahal izango dira, estatutu hauetako 18.2. artikuluan adierazitako quorumarekin hartutako Batzarraren erabaki bidez. Kasu horretan, ekarpena egiaztatu behar den urtearen aurreko urteko eroldako biztanleriaren proportzioan egingo dira zerbitzua jasotzen duten udalerrien eta kontzejuen ekarpenak.

29. artikulua.- Tarifak.

Hornidura-zerbitzuen eta, hala badagokio, saneamendu-zerbitzuen tarifak ezartzerakoan, ondokoak kontuan hartuko dira: lehen ezarpenaren finantza-gastuak, ustiapen-, kontserbazio- eta mantentze-kostuak, zuzenekoak zein zeharkakoak, etorkizunean hedapenak egiteko helburuz, erreserba bat sortzeko ezar daitezkeen kuotak; eta Partzuergoaren kredituen edo partzuergoko kide diren erakundeek ekarpenen ondoriozko finantza-gastuak.

30. artikulua.- Tarifak ezartzeko irizpideak.

Partzuergoak aplikatu beharreko tarifak ezartzeko, honako irizpide edo printzipio hauek hartuko dira kontuan:

- a) Nahikotasuna: zerbitzuari finantza-autonomia emateko moduan kalkulatu da tarifen zenbatekoa.
- b) Progresibotasuna: gehien kontsumitzen dutenek gehiago ordainduko dute.
- c) Berdintasuna: zerbitzu bera jasotzen duten Partzuergoko toki-erakundeetako bizilagunek tarifa berbera izango dute. Partzuergoko erakunde guztietan lehen mailako sarean neurtutako emariaren tarifa berberak aplikatuko dira.
- d) Banakakotasuna: aleko prezioa ezarriko da kontsumitzen den unitate bakoitzeko.
- e) Industria-horniduraren tarifa, kargaren arabera ezarriko da, Partzuergoak ezarriko dituen baremoak kontuan hartuta.
- f) Partzuergoko kide ez diren erabiltzaileei tarifa bereziak ezarriko zaizkie, kasu berezietan lor

daitezkeen akordioei kalterik egin gabe.

31. artikulua- Tarifak ezartzea.

Partzuergoaren asmoa da tarifek hark ematen duen zerbitzuaren kostuak estaltzea. Ildo horretan, tarifak ezarri eta handitu ahal izango dira modu mailakatuan Partzuergoak erabakitzen duen egunetik aurrera. Partzuergoari dagokio lehen mailako sareko tarifak finkatzea, salbu eta haren izaeragatik ezin bazaio eskumen hori esleitu; kasu horretan, Partzuergoko erakundeek Partzuergoak horretarako proposatzen dituen tarifak onartu beharko dituzte.

32. artikulua.- Administrazio-kudeaketaren batasuna.

Jarduteko printzipioa da erabiltzailearekiko administrazio-kudeaketaren batasuna. Faktura edo ordainagiri bakarra ezarriko da, halako moldez non fakturako kontzeptuak banatu ahal izango diren, bakoitzari ematen zaizkion zerbitzuen arabera.

Uraren horniduragatik Partzuergoak erabiltzaileari aplikatuko dizkion tarifetan ondoko hauek sartuko dira: lehen mailako sareko horniduraren prezioa, banaketa-gastuak eta tarifetako gainerako kontzeptuak, bigarren mailako sareko galerak barne.

Partzuergoko erakundeek kobratuko dituzte tarifa horiek, eta Partzuergoari ordaindu beharko diote, batzarrak ezarritako epeetan, lehen mailako sareko zerbitzuei dagokien zenbatekoa. Erakunde interesdunek hala eskatzen dutenean eta Batzar Nagusiak komeni dela erabakitzen duenean, Partzuergoak bere gain hartu ahal izango du abonatuaren kudeaketa.

Partzuergoak hala eskatuta, Arabako Foru Aldundiak kendu ahal izango du bere kontura diren tarifak ordaintzeko behar den diru kopurua, tributu itundueta parte hartzeagatik toki-erakundeek dituzten ekarpenetatik eta estatutu hauetako 28.2. artikulua nahitaez ezarri beharreko ekarpenetatik.

33. artikulua.- Irabaziak.

Irabaziak ez dira inoiz banatuko Partzuergoko kide diren erakundeen artean. Tarifak gutxiago igotzeko edo tarifak jaisteko erabiliko dira irabaziak edo handitze, hobekuntza eta/edo inbertsio berrietarako erreserba-funtsak eratzeko.

34. artikulua.- Partzuergoaren ondarea.

1.- Partzuergoaren ondarea osatuko dute Partzuergoko erakundeek haren helburuak betetzeko besterendutako aktiboek, ondasunek eta eskubideek, bai eta Partzuergoak bere funtsekin edo horretarako aurreikusitako edozein modalitatearen arabera eskuratutakoek ere, zuzenbidearen arabera.

2.- Arabako Foru Aldundiak, inbentario xehatua egin ondoren, honako hauek besterenduko dizkio Partzuergoari: ur-emakidak, eraikitako edo eraikitzen ari diren urtegiak, egindako eta egiten ari diren hoditeria-lineak, uren araztegiak, hodi-biltzaileak lehen mailako sareari partzialki edo osorik lotuta dauden gainerako instalazioak, baliabide materialak eta proiektuak, bai eta hornidura-sareei eta, hala badagokio, saneamendu-sareei partzialki edo osorik lotutako edozein ondasun edo eskubide ere.

3.- Era berean, Partzuergoko kide diren toki-erakundeek, inbentario xehatua egin ondoren, Partzuergoari besterenduko dizkiote lehen mailako ur-sareari partzialki edo osorik lotuta dauden instalazio, bitarteko material, proiektu eta bestelakoak, hala nola, iturburuak, urtegiak, putzuak, emakidak, deposituak, araztegiak, hoditeria-sareak, jasogailuak, linea elektrikoak eta lehen mailako sareko gainerako elementuak, bai eta hornidura-sareei eta, hala badagokio, saneamendu-sareei partzialki edo osorik lotutako edozein ondasun edo eskubide ere.

4.- Partzuergoak bere gain hartuko ditu eratze-unean hitzartutako kreditu-eragiketarik itzultzeko urteko ordainketak, bai eta bere indarraldian izenpetzen direnak ere, baldin eta horien xedea bada lehen mailako sareko azpiegitura-lanak eta deposituen, urtegien eta abarren eraikuntza finantzatzea.

35. artikulua.- Langileak.

Partzuergoak bere helburuak betetzeko beharrezkotzat jotzen duen adina lanpostu sortu ahal izango ditu, funtzionarioenak edo langile lan-kontratudunenak. Atxikita dauden administrazio publikoaren araubide juridikoa izango dute, eta haien ordainsariek ezin izango dituzte inola ere gaintitu administrazio horretan lanpostu baliokideetarako ezarritakoak.

Salbuespenez, Partzuergoan parte hartzen duten administrazioetako langilerik ezin badu eduki bete beharreko eginkizunak bereziak direlako, Partzuergoak atxikita dagoen administrazioaren organo eskudunak baimena eman ahal izango du Partzuergoak langileak zuzenean kontratatzeko aipatutako eginkizun horietan aritu daitezen.

36. artikulua- Idazkaria.

1.- Partzuergoko idazkaritzak eginkizun hauek izango ditu:

- a) Batzar Nagusira eta Gobernu Batzarrera joatea, hitzarekin baina botorik gabe.
- b) Batzar Nagusiaren eta Gobernu Batzordearen egintza eta erabaki guztien eta lehendakariaren ebazpen guztien fede ematea.
- c) Batzar nagusiari eta bere lehendakariari nahitaezko lege-aholkularitza ematea.
- d) Partzuergoaren posta eta agiri guztiak bideratzea eta artxibatzea, aldez aurretik lehendakariak jakinda eta erabakita.
- e) Toki araubidearen legeriak toki-administrazioko idazkariaren lanposturako ezartzen dituen gainerako eginkizunak.

2.- Plaza sortzen ez den bitartean edo esleitzen ez den bitartean legezko araudi aplikagarria betez, Partzuergoko udaletan kargu hori betetzen duten pertsonak bete ahal izango dute postua, edo eginkizun horiek kanpoko langileekin edo profesionalekin kontratatu ahal izango dira.

37. artikulua.- Kontu-hartzailea.

1.- Partzuergoko kontu-hartzaileak kontabilitate-eginkizunak, kudeaketa ekonomikoaren gaineko aholkularitza eta fiskalizazio-lanak gauzatuko ditu; batez ere, honako hauek:

- a) Lehendakariari, edo eskuordetuz gero, zuzendari kudeatzaileari aholkuak ematea, aurrekontu arruntaren eta ezohikoaren aurreproiektua egiteko.
- b) Partzuergoaren kudeaketa ekonomikoa fiskalizatzea eta haren kontabilitatea eramatea.
- c) Oro har, indarrean dagoen legeriak kontu-hartzaileentzat ezartzen dituen eginkizunak.

2.- Kargurako pertsona izendatzeari dagokionez, aurreko artikuluan idazkaritzarako ezarritakoa beteko da.

3.- Idazkaritzako eta kontu-hartzailetzako eginkizunak pertsona bakarrak bete ahal izango ditu.

38. artikulua.- Kide berriak sartzea.

1.- Partzuergoaren erabakia Partzuergoan sartu nahi duten udalek eta kontzejuek formalki egin beharko dute bertan sartzeko eskaera, Partzuergoko lehendakariari zuzendutako idazki baten bidez. Horrekin batera aurkeztu beharko dute udalbatzak edo kontzejuko batzarrak horri buruz hartutako erabakiaren ziurtagiria, legeak eskatutako formalitateak eta gehiengoak beteta.

2.- Kide berriak onartzeko eskaerak jendaurrean jarriko dira, 15 eguneko epean.

3.- Kide berriak sartzeko onarpena onartzea edo ukatzea Batzar Nagusiak erabakiko du gehiengo kualifikatuz, estatutu hauetako 18.3 artikuluan arabera, eta erakunde interesdunari ofizialki jakinaraziko dio.

4.- Kide diren udalerrietako kontzejuek sartzen badira, Gobernu Batzordean duten ordezkariak eskuordetuko diete kide diren udalerriaren ordezkari diren Gobernu Batzordeko kideei.

5.- Partzuergoaren Batzar Nagusiak onartzen duen kide berriak egin beharreko ekarpen ekonomikoak Batzar Nagusiak berak ezarriko ditu. Era berean, Partzuergoaren zerbitzuen mantentze-gastuetarako ezartzen den aldizkako edo ohiko ekarpena finkatuko du.

6.- Nolanahi ere, Partzuergoan erakunde berriak sartzeko ez da izango estatutuak aldatzeko izapideetarako arrazoi, Partzuergoko kide berriak hartzeko estatutuak egokitu beharra alde batera utzi gabe.

39. artikulua.- Kideek Partzuergoaren borondatez uztea.

1.- Partzuergoko kideek edozein unetan utzi ahal izango dute Partzuergoaren, udalbatzak edo kontzejuko organo eskudunak lege eskatutako quorumarekin eta gehiengoekin hala erabaki ondoren.

Uztea bidezkoa izango da udalderri edo kontzeju batek Partzuergoaren ematen duen zerbitzuen titularrak izateari uzten dionean.

Uztea eskatzen duenak eguneko izan behar dituzten Partzuergoari egindako ekarpenen ordainketak.

2.- Uzteko eskubidea baliatzeko, Partzuergoaren Batzar Nagusiari jakinarazi beharko zaio Partzuergoko erakundeak hartu duen uzteko erabakia, eta berariaz adierazi beharko dira zein organok hartu duen uzteko erabakia, eta erabakia hori hartzeko quoruma eta gehiengoa.

3.- Uzteko-eskubidea baliatzearen ondorioei dagokienez, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 126.1 artikuluan xedatutakoaren arabera, Partzuergoaren desegingo da,

salbu eta gainerako kideek –Batzar Nagusian berriaz hartutako erabakiaren bidez, uztearen berri izan eta uzte-kuota, baldintzak eta modua onartu aurretik– haren jarraipena erabakitzen badute. Nolanahi ere, Partzuergoak jarraitu ahal izateko, gutxienez bi administrazio kide izaten jarraitu behar dute, edo administrazio baten baino gehiagoren mendeko bi erakunde edo organismo publikok.

4.- Uzteko eskubidea baliatzeak ez badakar Partzuergoa desegitea, uzteko eskubidea erabiltzen duenari zenbateko uzte-kuota dagokion kalkulatu da, honako banaketa-irizpide hau kontuan hartuta:

a) Uzten duen erakundeak sartzean ekarritako ondasunak entregatu edo itzuliko ditu Partzuergoak.

b) Partzuergoak edo beste erakunde batek lehendik dauden Partzuergoaren titulartasuneko azpiegiturretan egindako inbertsioak edo hobekuntzak, eta horiek egiteko beharrezko ondasun eta eskubideak, uzten duen erakundeak soilik erabiltzen dituztenean, hari emango zaizkio, eta hark Partzuergoari ordaindu beharko dio uzteko erabakia jakinarazten den egunean Partzuergoaren balantzean agertzen den inbertsio horien kontabilitate-balio garbia.

c) Azpiegituraren batek uzten duen erakundeari ez ezik, Partzuergoan jarraitzen duen beste erakunderen bati ere zerbitzua ematen badio, Partzuergoak eta uzten duen erakundeak hitzarmen bat sinatu beharko dute. Hitzarmen horren bidez, Partzuergoak zerbitzuak ematen jarraituko du uzten duen erakundeari, eta azken horrek zerbitzu horiengatik zenbateko bat ordaindu beharko du, Partzuergoak azpiegitura horren kudeaketan egiten dituen gastuetan duen partaidetzaren proportzioan kalkulatu.

d) Uzteko eskubidea baliatzen duenari zenbateko uzte-kuota dagokion kalkulatu da. Horretarako, Partzuergoa likidatuz gero legokiokeen ondare garbiaren saldoaren partaidetza hartuko da aintzat, eta denbora-erreferentziaz hartuko da Partzuergoaren Batzar Nagusiarik uzteko erabakia jakinaraztearena –organoa, quoruma eta gehiengoak zehazteko eskakizun formalen arabera–.

5.- Partzuergoaren Batzarrek, kideen gehiengo osoz, uzte-kuota, modua eta hura ordaintzeko edo, hala badagokio, kobratzeko gainerako baldintzak onartuko ditu.

6.- Partzuergoa benetan uzteari dagokionez: uzte-kuota positiboa bada uzten duenarentzat, uzte hori eraginkorra izango da Batzar Nagusiak onartzen duen unetik aurrera, eta une horretatik aurrera ez da Partzuergoko kide izango ondorio guztietarako. Aitzitik, uzte-kuota negatiboa bada uztea erabaki zuenarentzat, kuota hori ez da eraginkorra izango Partzuergoko kide horrek zorra osorik ordaindu arte, eta, bitartean, Partzuergoko kideetat joko da, eta Partzuergoak hartzen dituen erabakiak bete beharko ditu.

Nolanahi ere, uzteko eskubidea baliatzearen ondorioak 40/2015 Legean eta gainerako lege-araudi aplikagarrian xedatutakoaren arabera arautuko dira.

39 bis artikulua. Kideak nahitaez kanporatzea.

1.- Batzar Nagusiak, botoa emateko eskubidea duten Batzar Nagusiko kideen legezko kopuruaren gehiengo osoaren aldeko botoarekin, horretarako deitutako ezohiko bilkuran, honako kasu hauetakoren batean dauden erakundeak Partzuergotik bereizi eta kanpo utzi ahal izango ditu:

a) Partzuergoaren interes ekonomiko eta funtzionalei edo haren irudiari kalte oso larria eragitea, doluz edo zabarkeriaz.

b) Jarduerarik eza edo kontrako jarduera, Partzuergoak legez eska dakizkiokeen betebeharrak betetzea eragozten duten proposamenak eta erabakiak hartzea eragotziz.

c) Gobernu- eta administrazio-organismoek hartutako edo emandako erabakiak behin eta berriz ez betetzea.

2.- Nahitaez kanporatzeko erabaki hori Batzar Nagusiaren esku utzi aurretik, Gobernu Batzordeak, kideen legezko kopuruaren gehiengo osoz, nahitaez kanporatzeko espedienteak hasteko erabaki arrazoitua hartu beharko du.

3.- Gobernu Batzordearen erabaki horren berri emango zaio alde egitea eskatzen zaion erakundeari, hogeit hamar eguneko epean bere eskubideekin bat datorrena alega edo proposa dezan.

4.- Epe hori igarotakoan, Partzuergoko erakunde guztien esku jarriko da espediente osoa, eta erakunde horiek nahi dituzten alegazioak eta/edo proposamenak egin ahal izango dituzte.

5.- Zerbitzu teknikoek edo teknikari eskudunak/ek espedienteari eta espedientean jasotako idazki eta dokumentuei buruzko txostena egingo du/dute.

6.- Egindako jardun guztiak ikusita, Gobernu Batzordeak espedientearekin jarraitzeko erabakia hartu beharko du, eta, hala badagokio, Batzar Nagusiarik helarazi beharko dio, onar dezan; bestela, atzera

egin eta amaiera eman beharko dio espedienteari. Lehenengo erabakia baliozkoa izateko, kideen legezko kopuruaren gehiengo osoaren aldeko botoa beharko da.

7.- Partzuegoko erakunderen bat nahitaz bereiztea eta kanpo uztea erabakitzen badu Batzar Nagusiak eta, horregatik, eragindako kalteak edo galerak erreparatzeko edo ordaintzeko Partzuegoak haren aurka abiarazi nahi dituen ekintzen kaiterik gabe edo horiei uko egin gabe, aurreko 39. artikuluko 4. eta 5. paragrafoetan ezarritako moduan jardungo da.

40. artikulua.- Estatutuak aldatzea.

1.- Estatutuak aldatzeko proposamena lehendakariari, Partzuegoko erakunde bakoitzari eta Gobernu Batzordeari eta Batzar Nagusiari dagokie.

2.- Aldaketarako proposamenak horretarako arrazoiak, aldatu edo gehitu beharreko arauen testua eta balioz gabetzen diren zerrenda izan beharko ditu, eta abalaturik egon beharko du, Batzar Nagusiaren botoen legezko kopuruaren herena ordezkatzen duten Partzuegoko erakundeek aurkezten badute.

3.- Aurreko paragrafoan adierazitako ekimena onartu eta Batzar Nagusia ezohiko bilkuran eratu ondoren, estatutuen aldaketari hasierako onespina emango zaio, egindako proposamenetan oinarrituta, eta, horretarako, egoki irizitako txosten guztiak aurkeztu ondoren.

4.- Estatutuak aldatzeko proiektua/proposamena, aipaturiko edukiarekin, Partzuegoko erakunde guztiei bidaliko zaie, hilabeteko epean alegazioak eta/edo proposamen alternatiboak egin ditzaten.

Ildo beretik, eta hilabeteko epean, entzunaldi publiko orokorraren izapidea emango da, erakunde bakoitzaren iragarki-oholetan jarritako iragarkien bidez, eta ALHAOn argitaratuta.

Epe horiek igarotakoan, zerbitzu teknikoek alegazio eta/edo proposamenei buruzko txostena egingo dute.

5.- Aurreko paragrafoetan aipaturiko jarduerak egin ondoren, Gobernu Batzordeak estatutuak aldatzeko proposamen zehatz bat bozkatuko du, eta Batzar Nagusiari helaraziko dio.

6.- Estatutuak aldatzeko, boto-eskubidea duten Batzar Nagusiko kideen legezko kopuruaren gehiengo osoaren aldeko botoa beharko da. Horretarako deitutako ezohiko bilkuran hartuko da erabaki hori.

7.- Batzar Nagusiaren erabakiak artikuluko 2. paragrafoan adierazitakoak jaso beharko ditu.

8.- Horrela onartutako estatutuen aldaketa Partzuegoa osatzen duten erakunde guztiei jakinaraziko zaie, Partzuegoko erakunde gehienek onar dezaten, erakunde horietako bakoitzaren berriazko legediak ezarritako eskakizunen arabera.

9.- Estatutuen idazketa berria, aldaketa behin betiko onartu ondoren, ALHAOn argitaratuko da, eta, hala badagokio, horren berri emango zaie kasuan kasuko erregistro ofizialei.

10.- Legeak Partzuegoari esleitzen dion nortasun juridiko propio eta berezia dela-eta, Partzuegoko erakunde gobernu-organoren eskudunek estatutuen aldaketa ez berrestea edo gerora ez onestea ez da, inola ere, aldaketa hori eraginkorra ez izatearen edo indarrean ez sartzearen arrazoi izango.

Partzuegoko erakundeek onartu ezean, erakunde horiek Batzar Nagusiko kideen gehiengo kualifikatuaren erabakia men egin beharko diote, edo hartutako erabakiaren aurka bidezkoak diren errekurso administratiboak edo jurisdikzionalak baliatu beharko dituzte, edo Partzuegoa utzi.

41. artikulua.- Desegitea.

1.- Partzuegoa desegiteko arrazoiak honako hauek dira:

a) Legeak hala xedatzea.

b) Partzuegoko kide diren erakunde guztiek egokitzat jotzea.

c) Partzuegoko kide diren erakunde kopurua aldatzea, baldin eta, aldaketa horren ondorioz, kide izaten jarraitzen ez badute gutxienez bi administrazio, edo administrazio baten baino gehiagoren mendeko bi erakunde edo organismo publikok.

d) Partzuegoak jarraitzea interes publikoaren aurkakoa dela agerian uzten duten gorabeherak gertatzea.

2.- Aipaturiko arrazoiren batean oinarritutako desegite-proposamena Batzar Nagusiko kideen heren batek gutxienez aurkeztu beharko dio Batzar Nagusiari, alderdi juridiko, ekonomiko eta teknikoei buruzko justifikazio-memoriarekin batera.

3.- Batzar Nagusiak desegite-proposamena aztertuko du horretarako deitutako ezohiko bilkuran, eta erabakia hartzeko, estatutu hauetako 18.2 artikuluko gehiengo kualifikatua beharko da.

42. artikulua. Desegiteko eta likidatzeko prozedura.

1.- Batzar Nagusiak, desegite-erabakiak jaso eta hurrengo egunetik kontaktzen hasita hogeita hamar eguneko epean, Batzorde Likidatzaile bat izendatuko du, zeina atxikita dagoen administrazioari lotuta eta lehendakari denak eta lau bokalek osatuta egongo baita. Batzorde horretan aholkularitza-eginkizunak betetzeko, lehendakariak izendatutako bi teknikari sartuko dira. Era berean, gai horretako teknikariak edo adituak deitu ahal izango dira bileretara, haien iritzia entzuteko edo beren espezialitateko gai zehatzei buruzko txostenak edo irizpenak prestatzeko soilik.

2.- Batzorde Likidatzaileak, gehienez ere lau hilabeteko epean, Partzuergoaren ondasun eta eskubideen inbentarioa egingo du, baliabideak, kargak eta zorrak zehaztuko ditu, eta, hala badagokio, langileak zerrendatuko ditu.

3.- Egindako inbentarioa ikusita, Batzorde Likidatzaileak Partzuergoko kide bakoitzari dagokion likidazio-kuota kalkulatu du, honako irizpide hauen arabera:

- Partzuergoak Batzarreko kide den erakunde bakoitzari emango dizkio ekarritako ondasunak.
- Partzuergoak edo beste erakunde batek lehendik dauden Partzuergoaren titulartasuneko azpiegiturretan egindako inbertsioak edo hobekuntzak, eta horiek egiteko beharrezko ondasun eta eskubideak, Batzarreko kide den erakundeak soilik erabiltzen dituztenean, hari emango zaizkio. Desegitean Partzuergoaren balantzean agertzen den inbertsio horien kontabilitate-balio garbia erakunde horren saldo hartzekodun gisa sartuko da, eta diruzaintzaren banaketan soilik hartuko dira kontuan.
- Inbertsio horietakoren batek erakunde bati baino gehiagori zerbitzua ematen badio, horietako bakoitzari zenbateko bat esleituko zaio desegitearen egunean inbertsio horien kontabilitate-balio garbiaren gainean, Partzuergoak azpiegitura horren kudeaketan egiten dituen gastuetan duen partaidetzaren proportzioan, erakunde horien saldo hartzekodun gisa sartuko da, eta kontuan hartuko dira diruzaintzaren banaketan eskubideak murriztuz.
- Desegitean diruzaintzarik badago, honela banatuko da:

Batzarreko kide den erakunderen batek Partzuergoari emandako zenbatekoak itzuliko dira, zenbateko horiek Batzarreko kide ere diren beste erakunde batzuentzat azpiegiturak egiteko direnean.

Diruzaintzaren gainerakoa, halakorik balego, likidatuko da erakunde bakoitzak Partzuergoko kide izan den denboran sortu dituen diru-sarreraren sorreran izandako partaidetza-irizpidearen arabera, likidazioan dagoen Partzuergoarekin erakunde bakoitzak duen zorra kenduta.

4.- Likidazio-proposamena egiteko, boto-eskubidea duten Batzar Nagusiko kideen legezko kopuruaren gehiengo osoaren aldeko botoa beharko da. Behin onartuta, loteslea izango da Partzuergoko erakunde guztientzat.

5.- Kapitulu honetan aurreikusi ez den guztian, 40/2015 Legean eta gainerako araudi aplikagarrian xedatutakoa beteko da.